

**2014ko uztailaren 30eko OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: 20.02
BUKAERA ORDUA: 20.30**

Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3.- Maite Lekanda Bilbao
- 4.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 6- Unai Arrizabalaga
- 7.- Mikel Larrazabal.

Idazkaria: Iker Jaka Arratibel

Ez dira etorri baina horretarako abisua eman du:

- Naiara Beldarrain Fullaondo.
- .- Unai Arruza Elorduy.

1.- Arteko akteen onarpena.

2014ko ekainaren 25eko ohiko osoko bilkuraren akta bertaratuek aho batez onartu dute.

2.- Dekretuak.

2014/84	10/06/2014	2014ko Udalekuen kontratazioan aurkeztutako proposamenak ordenan sailkatzeko.
2014/85	12/06/2014	M.T.E. jaunari ekainaren 14an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/86	12/06/2014	Alkatea " Gaztedi Mungialde 2014-2015" egitasmoa garatzeko hitzarmenaren onarpen dekretua

2014/87	13/06/2014	Unai Arrizabalaga Arruza eta senideak segregazio baimena Ostenduy parajea.
2014/88	13/06/2014	Langilegoaren abenduako aparteko ordainsarien aurrekinen ordainketa onartzeko.
2014/89	16/06/2014	Jose Ramon Ayo Barruetabeña licencia para utilización de camino público
2014/90	17/06/2014	J.L.O.I. jaunari ekainaren 17an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/91	17/06/2014	U.A.A. jaunari uztailaren 5ean bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/92	17/06/2014	O. D. B.ri Sertutxa auzoan "teilatua konponketa" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/93	18/06/2014	Mungia eta Gatikako udalen arteko emplegua sustatzeko hitzarmenaren ondorioz langabetuen hautapen prozesuaren emaitzak ikusita kontratatuko diren pertsonak zehazten dituen dekretoa
2014/94	20/06/2014	C.B.M.A.Y.O. enpresari bide konponketaren exekuzio agindua.
2014/95	20/06/2014	Hurrengoko ordainketak onartzen dira.
2014/96	24/06/2014	B. U. L.ri Garai auzoan "etxearen fatxada margozte" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/97	24/06/2014	B. U. L.ri Garai auzoan "etxearen ingurua egokitze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/98	24/06/2014	J. B. L.ri Libaroa auzoan "etxearen fatxadan harri jartze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/99	24/06/2014	2014 urteko Udalekuen kontratazioaren esleipena.
2014/100	27/06/2014	Naturgas Energia Distribución enpresari Sertutxa auzoko 67. etxea gas sareari lotzeko lanak egiteko baimena emonaz
2014/101	27/06/2014	J.I.V. jaunari Libero auzoko Etxebarri I eta Etxebarri II baserrietan erretaila egiteko, obra baimenduz
2014/102	27/06/2014	J.A.A. jaunari, Luberrietaondo auzoko 1,3 eta 5 zenbakidun eraikuntzako jabeak ordezkatzuz, Ur plubialak batzeko hodi bat jartzeko baimena emonaz
2014/103	27/06/2014	Ezkontza zibil baterako alkatearen delegazioa erabakitzeko.
2014/104	30/06/2014	M.E.O. jaunari Butroi auzoko 6 zenbakidun etxean Propano gasezko deposito baten instalazioa jartzeko baimena emonaz

Ez dute ezer esateko.

3.- 2013ko Kontu Orokorraren behin betiko onarpena.

Alkateak orain arte egindako pausuak gai honen inguruan azaltzen ditu. Horrela, Kontuen Batzorde Berezian pasatu genuela adierazten du. Baita ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela eta ez dela inŕolako erreklamaziorik egon.

Bozketa hasten da eta hurrengo adierazten dute zinegotziek:

GTI: Abstenitu egiten dira.

BILDU. Abstenitu egiten da.

EAJ-PNV: Aldeko 4 boto.

Kontu Orokorra onartzen da aldeko 4 botoekin. Idazkariak abuztuan kontu orokorra Euskadiko Herri Kontuen Epaitegiari bidaliko zaiola esaten du:

4.- Eskaerak eta Galderak.

Vanesak, Gatikako Bildu ordezkatzuz, 35/02 sumarioaren epaia dela eta testu bat irakurtzen du.

Horrela, beste batzuen artean, hurrengo pasarte hauek irakurtzen ditu:

“Emandako epaia guztiz errefusatzen dugu eta Auzitegi Nazionalak bultzada politikoko epaietan azaldu duen jarrera zigortzailearekin lotzen du Sortuk. Makroepaiketa honen bidez zigortu diren auzipetuak ez dira azken helburua, ezta Ezker Abertzalea bera ere, azken finean epaitu dena bere etorkizunaren jabe izan nahi duen herri oso bat da.”

“Aieteko konferentziatik eta ETAk bere jarduera armatua utzi zuenetik abantzu lau urte igaro direnean, PP eta espainiar gobernua atzeraka doaz, abiadura bizian gainera. Horregatik heltzen zaizkigu militzantzia independentista zigortzen duten hau bezalako epaiak, Auzitegi Nazioanelo lerro ofiziala ordezkatzten duten ebazpenak. Garai berri honetan, Auzitegi Nazionaleko epai politikoen bitartez errelato ofiziala eta alderdi nagusien errelato interesatua indartu nahi dituzte. Bere jarduera armatua bertan behera uzteko erabakia baliatu nahi dute ETaren porrota irudikatzeko.”

“Baina ezker abertzalearen porrot politikoa saltzeko zailtasun handiak dituzte, eta, egoera horretan, Bateragune auzian berretsi zigorrarekin eta 35/02 sumarioarekin emandako zigor epaiarekin, edo

laster batean Segurako auziarekin Estatuak bururaino eraman nahi du ezker abertzalearen gidaritzarekin zerikusia izan duen edonorren aurkako mendekua. Era horretan, botoek eta botoontziek, azken finean euskal jendartea berak, gezurtatzen duten proiektu politiko baten porrota nahi dute, hola edo hala, irudikatu. Horregatik egoera usteltzeko eta sufrimendua betikotzeko hautua egin dute. Aldiz, guk bizikidetza eta eskubide guztien errespetuaren bidea aukeratu dugu.”

Honen ondoren, Vanesak jada amaitutako kurtsoko azken eskola kontseilura alkatea joan zela ordezkari gisa dio eta bertan alkateak jakinarazi ziela bertan zeudenei dena prest zegoela ekainean ez bazen, uztailean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari lurra emateko; Hezkuntza Sailak Mesakoak ziren lurretan eskola berria egin zezaten. Hori dela eta, Vanesak alkateari galdetzen dio ea udalak hezkuntzari lurra eman dion eta gaur egungo egoera zein den eskola berriari dagokionez.

Alkateak eta Leixurik erantzuten diote iraila/urria bitartean gai hau plenora eramateko asmoa dutela. Alkateak ere gai honetarako batzorde informatibo berezi bat eratzeko asmoa azaltzen du.

20.30ean amaitu egin da osoko bilkura hau.

ALKATEA

ZINEGOTZIAK

IDAZKARIA

